

Alto Urola



'Herri ostatuak' proiektuko afari gidatuetan parte hartzeko aukera abian



Sei ostatuak parte hartzen dute proiektuan; argazkian, 'Herri ostatuak'-en aurkezpenean. / ASTARBE

Gure herrian bi topaketa aurrera eramango dira: martxoaren 25ean Santa Lutziko Topa tabernan eta apirilaren 1ean herrigunean dagoen Argindegi ostatuan

MIRYAM GALILEA

EZKIO.

Jueves, 27 febrero 2020, 08:55



Otsaila erdildean martxan jarri zen 'Herri ostatuak' proiektu berria, SagarArte elkarteak sustatzen duena. Bertan Gipuzkoako sei ostatuak parte hartzen dute, hauetako bi gure herrikoak direlarik; afari gidatu bereziak es-kaintzen dituzte proiektu honen baitan. Lehenengo afaria Larraulen aurrera eramane hilaren 14an eta bigarrena ostiralean (bihar) izango dugu Alkizan; gure bailarakoak martxoan eta apirilaren hasieran ospatuko dira, izena emateko epea zabalik dagoelarik.

SagarArte elkarteak, inguruko sortzaile gazteekin erakusketak antolatzen ditu, Astarbe sagardotegiak sustaturik. Orain dela hilabete batzuk Igartubeiti Baserri Museoan ikusgai izan genuen erakusketa

bat, honetan herriko hiru ostatuekin batera dastaketa bereziak aurrera eramane zirelarik. Oraingo honetan pauso bat aurrera eman dute SagarArte elkarteak eta Gipuzkoako sei ostatu elkartu dituzte egitasmo berezi bat aurrera eramateko: artea eta sagarraren kultura lotuz, afari gidatuak aurrera eramaten ari dira.

«Herriko ostatuak» lanaren barruan sortzaile gazte hauetako batzuen hemezortzi obra, sei ostatuetara eramane dituzte otsaila eta apirila bitartean; bigarren topaketa bihar izango da, Alkizan. Artelanak bi hilabetez egongo dira ostatuetan ikusgai eta, bakoitzean behin, sorkuntza hauetan oinarrituriko afariak eskainiko dira: hiru ostiraletan izango dira eta beste hiru asteazkenetan.

SagarArteko sortzaileen sor-kuntzetan oinarrituta Herriko Ostatu bakoitzak bost plater prestatuko ditu. Sarrerako bat, lehen plater bat, arraia duen plater erdi bat, haragia duen beste plater erdi bat eta postrea.

Afari gidatu formatoan, platerak aurkeztu aurretik SagarArteren sorkuntzak azalduko dira, obren atzean dagoen kontakizuna mahai gainean jarrit eta platerarekin duen harremana landuz. Bi elementu hauek amankomunean sagarra eta sagardoaren kultura dutenez, sagardoa ezberdinekin uztartuko dituzte obrak eta platerak.

Beraz, hilabete honetan hasi dira afari gidatuak eta apirila bitartean guztira sei izango dira aurrera eramango direnak. Lehenengoa Larraulgo ostatuan izan genuen; bigarrena, bihar Alkizako ostatuan aurrera eramango da; hurrengoa, martxoaren 4an Mutiloako ostatuan; martxoaren 11n, Zeraingo ostatuan; eta azken biak gure herrian izango ditugu. Hauetako lehenengoa Santa Lutziko Topa tabernan ospatuko da martxoaren 25ean; eta bigarrena eta proiektu honen azkena, apirilaren 1ean Argindegin izango dugu, azken honen inguruan hiru egunetako egitarau berezia ere aurrera eramango delarik.

Afari gidatuetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago eta lekua mugatua denez ahalik eta azkarren egitea komeni da.



La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Alto Urola

[Top 50](#)

- 1 UZ IKASTOLA, 2º GRUPO MÁS NUMEROSO DE LA LILATÓN
- 2 El Consistorio aprueba una subida salarial del 2,3% para sus trabajadores
- 3 Urretxu pone en marcha el servicio Mugitur para fomentar la vida sana y el deporte
- 4 Binakako Esku Txapelketako benjaminen ligaxka hamar bikotek jokatuko dute gaur
- 5 «Seguiremos impulsando acciones en beneficio del comercio local»

Comentarios



Noticias relacionadas

El Ayuntamiento de Zumarraga reparte 270 plantas de árboles autóctonos

Fantástico broche al Carnaval de Legazpi

Todo sobre Internet en el KZgunea

EL DIARIO VASCO

Patrocinada

#ESLALIGA

La trastienda del fútbol: lo que hay detrás de un Real Madrid - Barcelona




CONTENIDO PATROCINADO

Enlaces Patrocinados por Taboola

Juega esto durante 1 minuto y verás por qué todos son adictos

Vikings: Juego Online Gratis

Ganga para Guipúzcoa : vuelos baratos desde 14€ ida y vuelta



14 alimentos que te están matando lentamente

Gloriousa

MÁS NOTICIAS

por Taboola

Aplazado también el GP de Tailandia por el coronavirus

Seguimiento «mayoritario» de la huelga de las limpiadoras subcontratadas por UPV/EHU y Educación

Puigdemont llama a no aparcar nunca la vía unilateral

Fotos



 **La marca eibarresa que vuelve a arrasar en Operación Triunfo**

 **El Asteartita despide el Carnaval de Tolosa**



 **Denis Itxaso, en la exposición sobre Gregorio Ordóñez**

 **Las mejores imágenes del Nápoles-Barcelona**

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Domicilio social en Camino de Portuete, 2 San Sebastián 20018



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)